

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Gazteria Zerbitzua

2021ean gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdiaren ebazpena

Gasteizko Udalaren 2021eko diru-laguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorretako 9.2 oinarria betez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 23an hartutako erabakiaren berri ematen zaie interesdunei. Bertan gazteei zuzendutako proiektu eta zerbitzuak bideratzeko dirulaguntza deialdia ebazten da. Hala dio ebazpen berriak:

Gazteria Zerbitzuak 2021ean gazteei zuzendutako proiektu eta zerbitzuetarako diru-laguntza deialdia deitu zuen, eta 2021eko martxoaren 15ean argitaratu zen ALHAOn, 30. zenbakian.

Jasotako eskabideak balioetsi direlarik, batzorde teknikoak ebazpen-proposamena egin du 2021eko ekainaren 7ko txostenean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko otsailaren 26an onetsi zituen deialdi honen oinarriak ikusi dira.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak, bai eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza ere, zeinari 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran eman baitzion Gasteizko Udalbatzak hasierako onespena, eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn -5. zk.- argitaratu baitzen.

Ikusi direlarik eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2020ko urriaren 1ean emandako dekretua zein Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 legearen 127.1.g) artikulua, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkeztu dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Ondoko elkarteei 2021ean gazteentzako proiektuak egiteko diru-laguntzak ematea, adierazitako proiektuei eta adierazitako kopuruan, 2021erako indarrean dagoen gastuen aurrekontuko 2017/0116 2371 48935 partidaren kontura.

Diruz lagundutako proiektuak eta zenbatekoa:

– Krealai:

“Gazteak dantzaren erraletatik sortuz-jóvenes resurgiendo desde la danza” proiektua, 69 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 3.100,00 euro.

Emandako dirulaguntza: 2.250,00 euro (eskatua).

– Zabalzana Batuz:

“Zabalzana berpiztu” proiektua; 69 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 5.000,00 euro.

Emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro.

– Ailaket:

“Boluntarioritza hedatuz 2021” proiektua; 68 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 11.123,00 euro.

Emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro.

– Eginaren Eginez:

“Juventud y discapacidad” proiektua; 65 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 5.000,00 euro.

Emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro.

– Jimmy Jazz:

“Gazte Talent 21” proiektua; 65 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 13.039,91 euro.

Emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro.

– Atiza:

“Creando un fanzine de comic” proiektua; 64 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 3.300,00 euro.

Emandako dirulaguntza: 2.970,00 euro.

– Izanez:

“Me gusto diverso, me gustas diversa” proiektua; 60 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 3.500,00 euro.

Emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro.

– Talur: “

Respiro educativo” proiektua; 56 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 25.003,96 euro.

Emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro.

– Awake:

“Awake-Gasteiz educación emocional para jóvenes” proiektua; 54 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 13.461,82 euro.

Emandako dirulaguntza: 1.780,00 euro.

Dirulaguntzetan emandako zenbatekoa, guztira: 25.000,00 euro.

Bigarrena: Ordezko proiektuen zerrenda ordenatu hau onartzea, onuradunen batek uko eginez gero baliatzeko:

– Awake-Gasteiz:

“Awake-Gasteiz educación emocional para jóvenes” proiektua, 54 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 13.461,82 euro.

Legokiokeen dirulaguntza: 1.220,00 euro (legokiokeen 3000,00 euroko kopururaino falta den zenbatekoa).

– Haz kooperatiba:

“Fotografiar sin cámara” proiektua; 53 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 5.060,00 euro.

Legokiokeen dirulaguntza: 3.000,00 euro.

– Erakusmeta:

“Discoteca horizontal” proiektua; 52 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 3.000,00 euro.

Legokiokeen dirulaguntza: 2.400,00 euro.

– Asoc. de residentes afroamericana:

“I Concurso de fotografía Begiradak berritzen-Renovando miradas” proiektua; 51 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 3.000,00 euro.

Legokiokeen dirulaguntza: 2.400,00 euro.

– Baikor:

“Elkarrekin planetagatik-unidos por el planeta” proiektua; 51 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 3.000,00 euro.

Legokiokeen dirulaguntza: 2.400,00 euro.

– Isabel Orbe:

“Programa de promoción y autonomía personal” proiektua; 50 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 3.000,00 euro.

Legokiokeen dirulaguntza: 2.343,48 euro (eskatua).

Hirugarrena. Atzera botatzea eskabide hauek, gutxieneko puntuazioa (50) lortzen ez dutelako:

Babestu:

“Socialización de la violencia sexual” proiektua; 46 puntu.

Aurkeztutako aurrekontua: 5.060,00 euro.

Laugarrena. Interesdunei erabakia jakinaraztea, ALHAOn argitaratuta, eta orobat adieraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea

izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Bosgarrena. Dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikuluekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 26an

Alkatetzaren eta Herritar Harremanen Saileko zuzendaria
ESTITXU PEREDA SAGREDO